# BESTELAKO XEDAPENAK

## LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

## 4564

*EBAZPENA, 2022ko urriaren 17koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita «Erandioko tren kotxetegien oinarrizko proiektuak» ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda.*

ETSk kudeatutako lineen instalazio osagarri gisa, ezinbestekoa da, ustiapenari dagokionez, estrategikoki banatutako gordelekuak edukitzea, linean zirkulatuko duen material mugikorra gordetzeko eta mantentzeko. Funtzionamendu- eta eraginkortasun-arrazoiengatik, gordelekuak trazaduraren inguruan jarri behar dira, ahalik eta ustiapen arrazionalena ahalbidetzen duten lekuetan.

2022ko urriaren 14ko Ebazpenaren bidez, «Erandioko tren kotxetegien oinarrizko proiektua» onetsi zen.

«Erandioko tren kotxetegien oinarrizko proiektuaren» helburua da ETS-RFVren gordelekuen eta haien trenbide-zabaltzaren ezarpen berria aztertzea eta definitzea, egungo Lutxana-Sondika linean, Arriagasko tunelaren hegoaldeko ahoaren ondoan, Txorierrin (Erandio, Bizkaia). Era berean, horiek ahalik eta ondoen ustiatzeko eta erabiltzeko behar diren instalazioak definitu eta baloratzen dira.

Lursailak lortzeko eta ukitutako ondasun eta eskubideak kudeatzeko, proiektuak ondasun eta eskubide horien identifikazioa biltzen du. Horretarako, desjabetzeen eranskinean ageri dira lurzatien zerrenda eta planoak.

Organo honek eskumena du garraio-azpiegituraren arloko jarduerak betearazteko beharrezkoak diren desjabetze-espedienteak izapidetzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 16.2.c) artikuluak xedatzen duenaren arabera.

Trenbide sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6.2 artikuluak xedatutakoaren arabera, beste lursail batzuk erabili beharra dakarten trenbide-lineen proiektuak, horien tarteak edo tren azpiegituraren beste elementu batzuk eraikitzeko proiektuak edo lehendik zeuden azpiegiturak aldatzeko proiektuak onartzen direnean, onespenak berekin ekarriko du onura publikoaren edo gizarte-interesaren deklarazioa, lursail horiek okupatu beharra izatea eta okupazio hori premiazkotzat deklaratzea, ukitutako eta identifikatutako ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako.

Nolanahi ere, proiektua onartzeak inplizituki berarekin dakarren arren proiektuak ukitutako ondasunak eta eskubideak okupatu beharra, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 17.2, 18. eta 19.2 artikuluek ondasun eta eskubide horien xehetasunak jasoko dituen zerrenda egin eta jendaurrean jarri behar dela ezartzen dute, nahi duenak alegazioak eta datuak aurkeztu ahal izan ditzan, okerrak zuzentzeko eta interesdunak zeintzuk diren ondo zehazteko.

Hortaz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Jendaurrean jartzea «Erandioko tren kotxetegien oinarrizko proiektuak» ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda, ebazpen hau azken aldiz argitaratu eta hurrengo hamabost (15) egun

baliodunako epean alegazioak aurkeztu ahal izan daitezen, okerrik baldin badago zuzentzeko, hala ezartzen baitute Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 19.2 artikuluak eta horrekin bat datozenek. Alegazioak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira (Donostia kalea 1 – Lakua 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Aipatutako epean, ondasun eta eskubideen zerrenda Erandioko udaletxeko iragarki-oholean ere erakutsiko da jendaurrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 17a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.

ERANSKINA

ERANDIOKO TREN KOTXETEGIEN OINARRIZKO PROIEKTUA

| Finka zk. | Katastroko erref. Eta udalerria | Jabea | Eragin mota (m²) | | | Izaera |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Erabateko Desjabetzea | Zortasun iraunkorra | Aldi-baterako Okupazioa | |
| 001 | 1039 01001 Erandio | Erandioko udala | 610 | - | - | Landaretza espontaneoa |
| 002 | 1039 01002 Erandio | Ángel Muñoz Delica<br>María Adelaida Sustacha Gorostiaga<br>Pedro María Sustacha Sauto<br>M.ª Teresa Sustacha Sauto<br>Jose Ramón Alberto Sustacha Gorostiaga<br>María Rosa Landaluce Sustacha<br>Hrdos. de María Dolores Eloisa Landaluce Sustacha<br>Eloisa Sustacha Solano<br>Juan Manuel Sustacha Solano | 738 | - | 5 | Landaretza espontaneoa |
| 003 | 1039 01003 Erandio | Jose María Arieta-Araunabeña Bustinza<br>Itziar Arieta-Araunabeña Bustinza<br>Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza<br>María Begoña Arieta-Araunabeña Bustinza | 651 | - | - | Landaretza espontaneoa |
| 004 | 1039 01004 Erandio | Rosa María Iturregui Aurrecoechea<br>Nicolas González de Durana Uruchurtu<br>Jose González Durana Aguirre<br>Luronpe SL | 595 | - | 5 | Landaretza espontaneoa |
| 005 | 1039 01005 Erandio | Joseba Peña Murgia<br>M.ª Elisa Peña Murgia<br>María Amaya Madariaga González<br>Ana María Madariaga Bilbao<br>Jesus María Barrenechea Echevarria<br>María Victoria posada Camiruaga<br>Alazne Madariaga Sasieta<br>Imanol Madariaga Sasieta<br>María del Coro Madariaga Elicegui<br>María Arantzazu Madariaga Elicegui<br>Jose Alberto Asla Madariaga<br>María Rosa Asla Madariaga<br>Hrdos. de Petra Galdos Camiruaga<br>Hrdos. de Vicenta Galdos Camiruaga<br>Estibaliz Plaza Mentxaka<br>Ramón Mentxaka Ugalde<br>Bakarne Mentxaka Ugalde<br>Hrdos. de Narciso Galdos Camiruaga<br>Berta Madariaga Galarza<br>María Jesús Madariaga Galarza<br>Jose Luis Madariaga Galarza<br>Jone Madariaga Sieira<br>Jose Luis Molinuevo Barrenechea<br>Victor Molinuevo Cuartango<br>Iñigo Molinuevo Cuartango<br>José María Posada Gil<br>Ana María Posada Gil<br>Pedro Maria Posada Gil<br>Maria Carmen Posada Gil<br>Maria Mar Lourdes Galdós Weible<br>Iñigo Galdós Weible<br>Yolanda Molinuevo Gallo | 1291 | - | 5 | Landaretza espontaneoa |

| Finka zk. | Katastroko erref. Eta udalerria | Jabea | Eragin mota (m²) | | | Izaera |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Erabateko Desjabetzea | Zortasun iraunkorra | Aldi-baterako Okupazioa | |
| | | Fernando Molinuevo Gallo<br>Libe Ezenarro Asla<br>Keltse Ezenarro Asla<br>Lierni Ezenarro Asla | | | | |
| 006 | 1039 01006 Erandio | Promociones Zorroza SL | 826 | - | - | Landaretza espontaneoa |
| 007 | 1039 01007 Erandio | Jose Luis Zubiaur Díez<br>Luis Miguel Zubiaur Díez | 781 | - | - | Landaretza espontaneoa |
| 008 | 1039 01008 Erandio | Azpiegiturak SA Medio Propio | 808 | - | - | Landaretza espontaneoa |
| 009 | 1039 01009 Erandio | Iñaki Vidaurrazaga Oar | 601 | - | - | Landaretza espontaneoa |
| 010 | 1039 01010 Erandio | Pedro Maria Arrizabalaga Camiruaga<br>Javier Arrizabalaga Camiruaga | 513 | - | 1 | Landaretza espontaneoa |
| 011 | 1039 01011 Erandio | Dyrmarlan SL | 7711 | - | 1700 | Landaretza espontaneoa |
| 012 | 1129 07001 Erandio | Promociones Zorroza SL | 1017 | - | 23 | Landaretza espontaneoa |
| 013 | 1039 03001 Erandio | Erandioko udala | 761 | - | 693 | Landaretza espontaneoa |
| 014 | 1039 02003 Erandio | Sprilur, SA | - | - | 6 | Landaretza espontaneoa |
| 015 | 1039 02004 Erandio | Sprilur, SA | - | - | 123 | Landaretza espontaneoa |
| 016 | 1029 07002 Erandio | Bizkaiko Foru Aldundia<br>Ogasuna eta Finantzak Saila<br>Ondare Zerbitzua | 397 | - | - | Landaretza espontaneoa |
| 017 | 0013 00194 Erandio | Bizkaiko Foru Aldundia<br>Ogasuna eta Finantzak Saila<br>Ondare Zerbitzua | 49 | - | - | Landaretza espontaneoa |